


FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabidei dagokienez, aplikazioak funtziona dezan beharko diren aktibo garrantzitsuenak zeintzuk diren aztertu eta zehaztu ditugu. Baliabide fisioak, intelektualak, giza-baliabideak eta finantza-baliabideak izan daitezke.



Lehenik eta behin, giza baliabideei dagokienez, **informatikari bat kontratatuko** genuke app-a diseinatzen laguntzeko, eta app-aren barne kudeaketak eta mantenua aurrera eramateko. Adibidez, eguneratzeak bere esku egongo lirateke.

Baliabide fisikoei dagokienez, app-aren programazioa aurrera eramateko **ordenagailu profesional** bat erabiliko genuke, bai proiektuaren hasieran, eta bai proiektua aurrera joan ahala egingo diren aldaketak burutzeko. Horrez gain, **mugikor bat** eduki beharko genuke sare sozialetako kontuak koordinatzeko eta edukia grabatu eta argitaratzeko.



Bestalde, app-a aurrera eramateko beharrezkoa den lana burutzeko **lokal bat** beharko genuke. Bertan, gune ezberdinak sortuko genituzke enpresako atal bakoitza garatzeko. Adibidez: sare sozialetarako edukia grabatzeko gela bat jarriko genuke, administraziorako beste bat, bilerak egiteko beste bat... Bezero nahikoa lortu dugunean eta enpresa handitzean hartuko dugu lokala, izan ere momentu hortan sentituko dugu leku handi baten beharra.



Bitarte hortan, telelana egingo dugu. Guretako baten etxeko beheko soilairuari erabilerarik ematen ez diotenez, bertan lan egiteko aukera ere izango genuke.